

On Julio beratarra


Edozein beratarrek jasoko lukeen meza izan nahi zuen Caro Barojak heriotzaren ondoren

Bera ama da». Bere bizitzako 80 urteetan erran zuen beste edozerk baino hobeto islatzen du Julio Caro Barojaren esaldi horrek antropologoak Nafarroako herri honetan sentitzen zuena. Nahi bezala, Bera amaren besopean harrapatu zuen azken loak eta nahi bezala, Itzea Barojatarren manteoian da atzodanik, Berako kanposantuan, Berafin eta Ricardo Baroja aitona eta osabaren ondoan.

E. E. / BERA

Beran eman dituen urte guztietan beste beratar bat izan da Julio Caro Baroja eta gainontzeko herritarrek halakotzat hartu dute. Askoren gogoan izango dira egun hauetan pajaritadun gizonari Berako karriketan barrena paseoan zebilela esandako hitzak: «Agur, On Julio». «Agur, gero arte», berak irribarretsu. Ez omen zen hitz errazekoa, baina hainbat beratarrek gogoratzen dituzenez, harengana hurbildu eta hizketan aritzen zen hizketan. Beratarren artean beratarra.

Larrun mendiko magalean dagoen Bera herrian hainbat urte eman ondoren, ordea, bazen Julio Caro Baroja azken unera arte



Bera herriari oso loturik bizi izan da txiki-txikitandik Julio Caro Baroja zena.

EDURNE KOCH

harritu zuen zerbait: «Mundu osoko jendea etorri da gure etxea ikustera baina beratar anitzek ez du oraindik ezagutzen». Halaxe erraten omen zien berarekin hizketan ibiltzen zirenei.

ON JULIOREN BETIKO NAHIA Itzeara inoiz hurbildu ez ziren horietako askok azken bi egunotan izan du-

te aukera. Julio Caro Barojak, ordea, ezingo ditu atarian agurtu. Itzea etxeko bigarren solairuan, sendikoek museo deitzen zuten horretan egon da antropologoaren gorpua, inoiz baino argalagoa, auzokideak atzo bere bila joan ziren arte, Itzea etxean hiltzea bezala, beste gainontzeko beratarren gisako hileta izatea baitzen On Julioren betiko nahia.

San Esteban elizan Berako erretorea zuen zain eta kanpotik etorritako agintari itxuroso guztien artean Berako herria, guzti-guztia. Don Luis erretoreak, Julio Caro Barojak nahi bezala, edozein beratarrek jasoko zuen meza eman zuen. Berezitasun bakarra abesbatzak mezaren bukaeran abestu zuen Perosiren 'Liberté' kantua izan zen.

Beratarrek ez zuten atzo antropologoa agurtu, ezta jakituna edo idazlea ere, beratarrek gizona agurtu zuten. Azken hilabeteotan Itzeako paretek eta Pio bere anaiak baino ez dute On Julio ikusi, baina beratarrek bazekiten beratarrik ospetsuena herrian zela. Atzo Berako lurrak betiko hartu zuen besapean seme kuttuna.

KRONOLOGIA

Itzeako jakintsuaren ibilaldi luzea pausoz pauso

1914. Azaroaren 13an jaio zen Madrilen Julio Caro Baroja, Pio Baroja idazle ezagunaren iloba. Rafael Caro Raggio argitaratzailearen eta zenbait liburu idatzi dituen Carmen Baroja Nessi narriaren aurreko semea izan zen. Oso gazterik, Berara etorri eta Beran bizi izan zen, osaba Pio Barojarekin. Lehen mailako ikasketak Madrilen eta Beran egin zituen, Madrilgo Institutu-Eskolan eta Berako Eskolapioetan.

1929. Lesakako etxeei buruzko ikerketa eman zuen argitara 'Eusko Folklore-ren' urtekarian.

1931. Hamazazpi urte zituela, Madrilgo Unibertsitatean sartu eta Filosofia eta Letrak ikasketei aranzadi eta Joxemiel Barandiaranekin hasi zen lanean antropologia munduan.

1936. Gerra Zibilak bere unibertsitate ikasketak eten zituen eta Berako etxean, Itzean, iragan zituen gudako hiru urteak. Gatazka horretan Juan Barnes lagun minena galdu zuen Julio Caro Barojak.

1939. Berriz ikasteari ekin eta hurrengo urtean Antzinako Historiako lizentziatura lortu zuen.

1942. Historian doktoratu egin zen, 'Viejos cultos y viejos ritos en el folclore de España' tesiarekin eta notarik onena jasoz.

1943. Aita hil zitzaion urtean, historiako eta dialektologiako katedra-laguntzaile lanetan hasi zen Madrilgo Unibertsitatean eta bi urte eskas jardun zuen horretan. Urte berean Sahagungo Institutu Bernardinoan, ikerketa lanak egin zituen.

1944. Madrilgo Museo del Pueblo Español-eko zuzendari izendatu zuten, bi urtetan bete zuen kargua hain zuten.

1947. Euskaltzaindiko kide ohoetzkoa beranduxeago izendatu zuten, eta baita Bartzelonako Letra Onen partaidea ere.


1950. Bere ama Carmen hil zen.

1951. Estatu Batuetara abiatu zen antropologia eta etnografia ikasteko eta Oxfordeko antropologia institutuan ikastaro bat egiteko dirulaguntza lortu zuen.

1953. Saharan izan zen herrialde horren inguruko ikerketa geografiko eta etnologikoak egiten.

1953. Ricardo Baroja pintorea hil zen, Julio Caro Barojaren osaba.

1956. Pio Baroja hil zen. Iloba-



Julio Caro Baroja.

rekin oso lotura estua izan zuen beti Pio Baroja idazle handiak. Julio Caro Baroja osabaren ondoan izan zen haren azken egunetan.

1957. Coimbrako Unibertsitatean Etnologia Orokorreko irakasle tituluduna izan zen, 1960ra bitartean. Ondoren, Parisko Ecole Pratique des Hautes Etudes-ek Historia Sozial eta Ekonomiko saileko ikasketa zuzendari izendatu zuen.

1963. Espainiako Historiako

Erret Akademian sartu zen.

1973. Wisconsin (EEBB) hiriko Unibertsitatean ikastaroa eman zuen.

1982. Euskal Herriko Unibertsitateko antropologia filosofikoaren katedradun izendatu zuten, eta beste lau sari eta izendapen jaso ere bai: Nafarroako Urrezko Domina zein foru komunitateko semeorde izendapena, Arte Ederretako urrezko domina eta Madrilgo ohoetzko seme izena.

1983. Giza zientzietako Asturiasko Printzea saria jaso eta Britainia Handiko zein Irlandako antropologia institutueta ohoetzko kide egin zuten.

1984. Gipuzkoako liburu-saltzaileek Zilarrezko Euskadi Saria eman zioten 'El laberinto vasco' liburuagatik eta, urte berean, Euskal Irrati Telebistako administrazio kontseiluan sartu zen; hala ere, bertan hiru hilabete izan ondoren kargua utzi zuen.

1985. Espainiako Letren Sari Nazionala jaso eta Espainiako Hizkuntzako Erret Akademiako partaide izendatu zuten. Urte berean, Bordeleko Unibertsitateak Honoris Causa doktore izendatu zuen, eta Madril eta Do-

nostian Julio Caro Barojaren 'Fantasías y devaneos' erakusketa' ikusi ahal izan zen.

1986. Eusko Ikaskuntzak omenaldia egin zion.

1988. Alfonso X. Ordena Zibilaren Gurutze Handia jaso zuen.

1989. Santanderko UIMPren Menendez y Pelayo saria jaso zuen.

1990. Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen Madrilgo ordezkari izendatu zuten. Urte berean Historiaren faltsifikazioei buruzko ikastaroa eman zuen Emeritoen Kolejoan.

1991. Madrilgo Kultura Islami-koko Mendebaldeko Fundazioko lehendakari izendatu zuten. Donostian Pio Barojari buruz egin zen ikastaro batean ere parte hartu zuten.

1993. 'Los mundos soñados' erakusketa aurkeztu zuen.

1995. Untzi Museoa omenaldia egin zion 'Los Baroja y el mar' erakusketaren bidez. Eusko Ikaskuntzak Humanitate eta Giza Zientzietako lehenengo saria eman zion aho batez. Joan den uztailaren 9an, berriaz, Kulturako Vianako Printzea saria eman zion Nafarroako Gobernuak.